



## **ENERGIA ALTERNATIBOEN IKERKUNTZA KOOPERATIBOKO ZENTROA ELKARTEA, CIC ENERGIGUNE**

### **CENTRO DE INVESTIGACIÓN COOPERATIVA DE ENERGÍAS ALTERNATIVAS, CIC ENERGIGUNE**

<b>Izena</b>	<b>Denominación</b>
Fundación Centro de Investigación Cooperativa de Energías Alternativas, CIC Energigune Fundazioa	Fundación Centro de Investigación Cooperativa de Energías Alternativas, CIC Energigune Fundazioa
<b>IFK</b>	<b>CIF</b>
G01241876	G01241876
<b>Izaera</b>	<b>Naturaleza</b>
Fundazioak.	Fundaciones.
<b>Kontabilitate-arabidea</b>	<b>Régimen contable</b>
Pribatua.	Privado.
<b>Aurrekontu-arabidea</b>	<b>Régimen presupuestario</b>
Gutxi gorabeherakoa.	Estimativo.
<b>Sorrera</b>	<b>Creación</b>
<p>Fundación Vasca para el Desarrollo de Tecnologías Energéticas-ENERLAN fundazioa, CIC energiGUNE zentroaren sorburua, fundazio pribatu eta izaera iraunkorreko gisa sortu zuten jarraian zehazten diren patrono fundatzaileek, 1996ko urriaren 31n egiletsitako eskritura publikoaren bidez: Iberdrola, MCC, Sener, Idom, Babcock-Wilcox, Eusko Jaurlaritzako Industria saila, Arabako Foru Aldundia eta Energiaren Euskal Erakundea (EVE-EEE). Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, <a href="#">1998ko irailaren 14ko AGINDUA, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, "Fundacion Vasca Para el Desarrollo De Tecnologías Energéticas" fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzekoa, betez.</a></p> <p>2006ko urtearen azken aldera, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen Ikerketa Kooperatiboko Zentro (IKZ - CIC) berri bat sortzea energiaren teknologien alorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko energia-politikari buruzko 3E-2010 Planaren eta Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Planaren (PCTI 2007-2010) barruan, Energia Klusterraren Plan Estrategikoan detektatutako premiak aintzakotzat hartuta. ENERLAN Fundazioaren Patronatuak 2007ko uztailaren 9an egin zuen bileran, aho batez erabaki zuten sozietatearen izena aldatzea eta CIC energiGUNE deitzea, eta Estatutuak egokitzea IKZ berria gai izan zedin esleitutako helburu eta jardueri heltzeko. Azkenik, IKZri energiaren esparruan behar</p>	<p>La Fundación Vasca para el Desarrollo de Tecnologías Energéticas-ENERLAN, génesis del CIC energiGUNE, nació como una fundación de carácter privado y naturaleza permanente, creada mediante escritura pública el 31 de octubre de 1996 por los siguientes patronos fundadores: Iberdrola, MCC, Sener, Idom, Babcock-Wilcox, el Departamento de Industria del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ente Vasco de la Energía (EVE). Fue inscrita en el Registro de Fundaciones en virtud de la <a href="#">ORDEN de 14 de septiembre de 1998, del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada "Fundación Vasca para el Desarrollo de Tecnologías Energéticas".</a></p> <p>A finales del año 2006, el Gobierno Vasco decidió la creación de un nuevo Centro de Investigación Cooperativa (CIC) en el ámbito de las tecnologías energéticas, dentro del Plan 3E-2010 de política energética del País Vasco, y del Plan de Ciencia, Tecnología e Investigación (PCTI 2007-2010), así como en las necesidades detectadas en el marco del Plan Estratégico del Cluster de la Energía. En reunión del Patronato de la Fundación ENERLAN celebrada el 9 de julio de 2007, éste acordó por unanimidad modificar su denominación social y adaptar sus Estatutos para convertirse en la entidad que acometa los objetivos y actuaciones asignadas al CIC energiGUNE. Finalmente y</p>

zuen dimentsioa eta pisua emate aldera, Patronatuak erabaki zuen, halaber, enpresa eta organismo gehiago gonbidatzea Fundazioan sar zitezen, patrono nahiz lankide gisa.

### EAEko saila (adskripzioa / esteka)

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak.

### J.E.S.N.

7219 Bestelako ikerketa eta garapen esperimentalak natura- eta teknika-zientzietan.

### Xedea

Fundazioaren helburua eta xedea da energiaren teknologien esparruan industriaren interesekoak izango diren ikerketa zientifikoak egiteko eta teknologia garatzeko jarduerak sustatzea eta garatzea eta beste entitate batzuekin koordinatzea bultzatzea Euskal Autonomia Erkidegoko energiaren estrategia teknologikoa sendotzeko.

### Sailkapena kontabilitate nazionalan

Sailkatu gabe.

### Kapital soziala / Fondo soziala / Fundazio-zuzkidura / antzekoa

1.067.627 € (eskrituratutako eta exijitu gabeko fundazio-zuzkidura 110.000 €).

### Gobernu-organoak

PATRONATUAREN OSAERA

Izendatzen dituen: --Patrono-kop./Guztira

EAEko Administrazio Orokorra-- 1/14

Arabako Foru Aldundia-- 1/14

EVE- EEE-- 1/14

Patrono pribatuak-- 11/14

### Ekitaldiko ekonomia- eta finantza- magnitude nagusiak

con objeto de dar al CIC la dimensión y alcance necesario en el ámbito de la energía, el Patronato acordó asimismo invitar a nuevas empresas y organismos a incorporarse a la Fundación, bien como patronos o como colaboradores.

### Departamento CAE (adscripción / vinculación)

Desarrollo Económico e Infraestructuras.

### C.N.A.E.

7219 Otra investigación y desarrollo experimental en ciencias naturales y técnicas.

### Finalidad

El objeto y finalidad de la fundación es la promoción y el desarrollo de cuantas actividades de investigación científica y desarrollo tecnológico sean de interés para la industria en el ámbito de las tecnologías energéticas y la coordinación con otras entidades para el impulso de la estrategia tecnológica de energía de la Comunidad Autónoma Vasca.

### Clasificación en contabilidad nacional

Sin clasificar.

### Capital Social / Fondo Social / Dotación Fundacional / similar

1.067.627 € (dotación fundacional escriturada no exigida 110.000 €).

### Órganos de Gobierno

COMPOSICIÓN DEL PATRONATO

Designados por: --Nº patronos/Total

Administración General de la CAE-- 1/14

Diputación Foral de Álava-- 1/14

EVE-- 1/14

Patronos privados-- 11/14

### Principales magnitudes económico-financieras del ejercicio

Magnitud económico-financiera <i>Ekonomia- finantza- magnitudea</i>	Balioa <i>Valor</i>
Aktiboa guztira <i>Activo total</i>	9.665.853 €
Ondare garbia <i>Patrimonio neto</i>	5.489.028 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk <i>Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil</i>	0 €
Batez besteko langile-kopurua <i>Nº medio de empleados</i>	91,84

**Sozietatearen helbidea**

Arabako Parke Teknologikoa, Albert Einstein, 48. CIC eraikina, 01510 Miñano (Araba).

**Webgunea**

[www.cicenergigune.com](http://www.cicenergigune.com)

**Domicilio Social**

Parque Tecnológico de Álava, Albert Einstein, 48. Edificio CIC, 01510 Miñano (Álava).

**Sitio Web**

[www.cicenergigune.com](http://www.cicenergigune.com)